

A.1. Lotu geziekin ezker aldeko zerrendako printzipioak dagokion azalpenarekin.

Aukera-berdintasuna

Eskubide guztiak berdintasun-baldintzetan gauzatzen direla bermatzea

Ekintza positiboa

Modu batera pentsatzera eta jokatzera behartzen duten ohiturak ezabatzeko lan egitea.

Rolak eta estereotipoak ezabatzea

Desberdintasun-egoerak konpentsatu eta zuzentzeko neurriak.

Tratu-berdintasuna

Dauden desberdintasunak kontuan hartzea eta jarduketak egitea.

Ordezkaritza orekatua

Emakumeak eta gizonak orekatzea erabakiak hartzen diren leku guztietan.

Genero-ikuspegia txertatzea.

Edozein diskriminazio debekatzea.

A.2. Tratu-berdintasunaren printzipioaren arabera, legeak debekatu egiten du sexuagatiko edozein bereizkeria mota.

Azaldu existitzen diren diskriminazio moten esanahia eta jarri bakoitzaren adibide bat.

ZUZENEKO BEREIZKERIA

- Zer da?

Pertsona bat bere sexuagatik modu diskriminatzailean tratatzen denean.

➤ Adibidez:

Emakume batek tratu txarra jasotzen du haurdun dagoelako.

ZEHARKAKO BEREIZKERIA

- Zer da?

Itxuraz neutroa den jokabide batek sexu bereko pertsona gehienei kalte egiten dienean.

➤ Adibidez:

Emakume batzuk oso prestatuta daude lanpostu batzuetarako, baina zailtasunak aurkitzen dituzte lana eta familiaren arreta uztartzeko.


A.3. Adierazi beheko esaldi bakoitza egia ala gezurra den.

	EGIA	GEZURRA
Legeak dio emakumeok eta gizonok bizitza publikoan bakarrik izan behar ditugula aukera berberak.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Euskal unibertsitateek ere Berdintasunerako Legea aplikatu behar dute.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sexuan oinarritutako bi diskriminazio mota daude: barneko diskriminazioa eta kanpoko diskriminazioa.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Sexuen arteko berdintasuna lortzeko bidean, botere publikoek bermatu behar dute aniztasuna ere errespetatzen dela.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Genero-ikuspegiak esan nahi du emakumeek gizonen baino eskubide gehiago dituztela.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Legearen arabera, Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen ordezkariak izan behar dute.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

A.4. Beheko hitzak ordena egokian jarri, eta genero-ikuspegia txertatzeari buruzko informazioa lortuko duzu.



Desberdintasun horiek zein diren identifikatu ondoren horiek zuzentzeko helburuak jarri behar dituzte.



Gero, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak abiarazi behar dituzte.

A.5. Bete hutsuneak emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeko ekintza positiboaren printzipioari buruz.

Botere publikoek berdintasunezko tratamendua eman behar diete **beti persona guztiei**.

Baina emakumeen eta gizonen arteko **aukera-berdintasuna** lortzeko, batzuetan, lehenik eta behin, **desberdintasuna konpentsatu behar dira**.

Ekintza positiboak **emakumeek gizonekiko dituzten desberdintasun-egoerak konpentsatu eta zuzentzen dituzten neurriak** dira.

Neurri horiek **aldi baterako** dira, desberdintasun-egoerak desagertu arte.

Azkenik, jarri ekintza positibo baten adibide bat:

Politikan, emakumeen eta gizonen presentzia bermatuko duen ordezkaritza lortzeko, hauteskunde-zerrendetan, sexu bakoitzeko pertsonak ezin dira izan 10etik 6 baino gehiago eta 10etik 4 baino gutxiago.